



AHOLKUAK UVB, UVA ETA UVB+UVA BIDEZKO FOTOTERAPIA TRATAMENDUAN

SAIOA HASI AURRETIK:

- Ez erabili kremarik eta lurrinik saio hasi baino bi ordu lehenago.
- Erabili produktu fotobabesleak alderdi sentikorretan eta lesiorik gabekoetan (aurpegian, ezpainetan, besapeetan, titiburuetan eta lepoan).

SAIOAN BERTAN:

- Erabili babesteko betaurrekoak saioan bertan.
- Emakumeek biluzik sartu beharko dute, eta gizonek kotoizko tanga beltz batekin, genitalak babesteko.
- Jakinarazi farmako berririk hartzen ari ote zaren, edota tratamendurako bestelako edozein intzidentzia.
- Inportantea da tratamendua zorrotz betetzea; abisatu saioen batera ezin azaldu bazara.
- Mediku arduradunak esango dizu tratamenduak zenbat iraungo duen.

SAIOAREN ONDOREN:

- Ez egon eguzkitan; babes zaitetz krema bereziekin, 50etik gorako babesa ematen dutenekin.
- Jarraitu zure ohiko tratamenduekin.
- “Bakar-bakarrik” emango dituzu medikuak agindutako pomadak edo kremak, berak esaten dizun moduan eta maiztasunarekin. Ez eman bestelako kremarik, ezta noizbait errezetatuak izanik ere.
- Erabili krema hidratatzaileak, saioen ondoren, maiz, tratamenduak lehortasuna eragiten baitu azalean.
- Bestelako medikazio bat erabili baino lehen, galdetu mediku arduradunari tratamendu horretaz; bestela, fototerapiaz arduratzen den erizainari.

Saiora joan ezin zaren guzti-guztietan, Dermatologia Zerbitzuan adierazi beharko duzu. Telefonoa: 945 00 75 78. Agertzen ez bazara eta bi asteko aurrerapenez abisatu ez baduzu, zitak desprogramatuko zaizkizu (programatutako tratamenduaren eguna eta ordua).

